

## » TELEGRAMA

Agur esateko tenorea iritsi zaio **Napoka Iria** taldeari. Baina azken aukera daukazu zuzenean ikusteko: uztailearen 7an Eibarko Coliseo antzokian, ez galdu! *STOP* Uztailearen 6tik abuztuaren 31ra bitartean, **Tabakalera Taulara** ekimenaren baitan, soinua, gorputza, mugimendua, koreografia, eta hizkuntza langai dituzten hainbat proposamen plazaratuko dituzte *STOP Game of Thrones* telesailaren zalea? Bermeoko Kafe Antzokian zita bat duzu uztailearen 11n: seigarren denboraldiaren maratoia eskainiko dute *STOP*

## » KONTZERTUA

## Familia giroan



Montse Auzmendi

### Txaikovski eta Waltonen obrak

ORCHESTRE NATIONAL BORDEAUX  
AQUITAINE | EUSKADIKO ORKESTRA  
SINFONIKOAK GONBIDATUA

Zuzendaria: Paul Daniel.  
Gasteizko Principal Antzokia.  
Ekainaren 21a.

Paul Daniel, orkestra zuzendari britainiarra  
(Birmingham 1958).



Euskadiko Orkestra Sinfonikoak amaitu du 2016/1017 denboraldia. Eta azkeneko saioaren protagonista orkestra gonbidatu bat izan da, Orchestre Nationale Bordeaux Aquitaine hain zuzen ere, Paul Danielen batutapean. Kontzertu ederra, biribila egin zuten, benetan. Soinu landua, enpastatua, fraseaketa leuna, intentsua dastatu genituen hasieratik bukaeraraino. Kontuan hartuz Gasteizko Principal Antzokiaren deabruzko akustika (beti esaten dudana bezala) mirari bat da hain inpresio ona ematea. Bi obraz osatu zen egitaraua, oso ezberdina, baina biek bazuten ezaugarri komun bat: lan pasionalak direla.

Txaikovskiren *Biolin eta orkestrarako kontzertua*, op. 35 obrak oso elementu

bitxiak ditu, eta justu horrek ematen dio edertasun arraro hori. Hasten da gai gozobatekin, gero inon agertzen ez dena obra osoan; dantza moduko pasarteak mugimenduetan kokatuta. Esan bezala, perfekzio inperfektua du lan honek

eta hori oso erakargarria da. Aldi honetan bertsio sendoa izan genuen, Vadim Gluzman biolin jolearen eskutik. Bakarleri honek (Ukrainan jaioa baina israeldar nazionalitatea duena) errusiar tradizioko jotzeko era du. Soinu biribila eta boteretsua, ñabardura anitzekoa, alde erromantikoa azpimarratzen duena. Horrez gain, erraztasun aparta erakusten du zailtasunak gainditzeko. Bere eskuetan guztiz sinplea zirudien partiturak, eta denok dakigu nolako zailtasunak dituen. Orkestrak ere benetan ongi bete zuen bere lana. Soinu orekatua azaldu zuen, inoiz zapaldu gabe bakarlaria, efektu politikak lortuz.

Saioaren bigarren zatian, William Waltonen *1. Sinfonia, si bemol minorean* entzun genuen. Esan daiteke Ingalaterrako obra ezagunenetako bat dela, bere aberastasun musikalengatik eta melodia edertasunarengatik. 1935. urtean amaitu zuen Waltonek lan handi hau, eta askotariko eraginak begi bistan daude lau mugimenduetan zehar: Sibelius, Stravinski, Prokofiev, eta Ravel (oso nabaria *Andante con malinconia* hirugarren mugimenduan) hor daude. Baina, han eta hemen hartutako ttanta hauekin, Waltonek jakin zuen estilo berezi eta distiratsu bat lantzen. Bordele-Akitaniako Orkestra Nazionalak azpimarratu zuen lanaren distira eta adorea, bertsio boteretsu eta zirraragarria eginenez. Bis bat bota zuten, gainera: Edward Elgaren *Enigma bariazioak* obratik hartutako pasarte bat. Gutizia. ■